

Zer berri Anjelua Murgoitio aske utzi dute

Kultura Itxaso Gonzalez jazz kantaria zapatuan kiroldegian

pitpilean

SORALUZEKO
HAMABOSTEKARIA
141. alea, 2006ko
urriaren 16an



Duo Plaentxi

“Sekula baino kantaldi
gehixago emon dogu aurten”



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA
EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 20 18 44



telefonoa: 943 75 0030

Arreketepintxoleee...



DOMENTX UZIN

Oin dala gutxi, udako gau epel baten, kotxian sartu nintzan herrira eta Kalebarrenen gizon kuadrilla bat entzun neban kantuan. Manolo Etxabe eta konpainia Mendata kanpua zeren txikitua hartzen eta eguraldixak inspirauta kantuan zebizen. Ez naiz gogoratzen ze kantu zan, baina demaseko poza hartu neban, berriz holako abotzak kalia entzutian. Holakuak ia gutxitan pasatzen dira.

Danok daukagu goguan... bueno danok ez. Gehixenok daukagu goguan, zela lehen asko kantatzen zan kalia. Nik gizon kuadrillez aparte, gehixen gogoratzen dotena Pablo eta kuadrillia dira, Osasunatik soinua jotzen urtetzen zebenian; eta Gabolatzeke ixiltasuna alaitzen zan, ohian gendenondako be. Gerora be euki dogu sarrittan berakin kantatzeko aukeria. Holakueta kalia edo tabernia zeoze etxekeagua bihurtzen ziran, barrerak desegin eta girua zabaldu egiten zan. Berdin zan lekua, beste giro bat sortzen zan gin-doiazen lekura juanda be.

Ines Marik esanda dakit zela, Bandia zeguan denboretan, Fausto izeneko gizon

batek klarinetia jotzen zeban kalia, eta umiak bere atzetik ibiltzen zian. Gayarre zinemako festibal haretan be Plazentziako jende askon kantu eta musikak entzuten ziran. Renatok be makina bat istorixa kontau izan dostaz, zela abesten zeben, ze kantu, habanerak, mejikanuak, boleruak... Mendatan gizon bat egoten zan bandurria jotzen eta kantuan. Koruko bazkari baten, Inurrietarrak kantu grazioso eta alegre bat kantatzen hasi ziran. Ondiokan askotan, zorionez, etaraten dau Mendotzek soinua kalera. Santa Zezilian be entzuten dia musika doinuak eguna hastiak in batera.

Ez deigun laga kaleko giro musikala emendatzen; eta gutxiago etxeke!! Oingo mp3an garai honetan, ez deigun kanturako griña norberandako bakarrik gorde! Musikian berezko lekua, gu garen edozein leku da, eta kalia leku aparta da. Plazentziako kantuak ez deiguzen ixiltasunera baztertu, arriskutsua da eta kultura gustagarri baten osasunantzat. Zeinek ez dau ikasi ondiok: "Arreketepintxoleeeee tiene un conejo, txikixa dala baina..."

LEHEN ASKO KANTATZEN ZAN KALIAN



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze
Telefonoa 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net
Erredakzio burua: Jon Basauri
Erredaktoreak: Jon Basauri, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla
Publizitatea: Ane Larreategi
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Diseinua eta maketazioa: BOROBILE Zerbitzu Grafikoak
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzi erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ERREPORTAIA

Ibai-eder soziedadean egin dugu hitzordua Jose Luis badiola eta Jesus Urizar, Duo Plaentxirekin. Mahai baten bueltan jarri eta beraien ibilbide musikari errepa-soa egin diogu, mokadu eta zurrut artean

Zorion agurrak



Ugaitz Catalan eta Domentx Uzin

Urriaren 17xan,
24 urte

Urriaren 19xan,
30 urte

- Itxuria edarra jakak, ezto?
- Probauko juau pixkat, ala?
- Bai, honek Pil-pileanekuok ez jotsek igarriko...

Zorionak bikote xelebre!!



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Lehiaketak

- **Peru Abarka Narrazio Laburren II. Lehiaketa**
Markina-Xemeingo Euskara Zerbitzua. 18 urtetik gorakoentzat. Bi kategoria: haur eta helduen literatura.
Epea: azaroaren 2tik abenduaren 22ra.
Tel: 94 616 74 54.
i.lasa@markina-xemein.com
- **Julene Azpeitia 19.Ipuin Lehiaketa**
Zumaia Udala. Gaia libre, 10 folio gutxienez. **Epea:** urriaren 31.
Tel: 943 86 50 25.
euskara@zumaikoudala.net.

Ikastaroak

- **DJ ikastaroa**
Jardun. Urriak 21 eta 28. 16:30etatik 19:30etara. Bergarako Gaztetxean. 12 euro ikasle eta langabetuentzat, 15 euro besteentzat. Irakaslea: Asier Balzategi. Izen-ematea urriak 18 baino lehen. **Tel:** 943 76 36 61.
www.jardun.net
- **Mendiko orientazio ikastaroa**
Vasco de Camping Elkarte. Teoriazko 10 ordu eta praktiketako 6 ordu eta erdi Prezioa: Bazkideak: 39; Bazkide ez direnak: 54. **Epea:** 2006-10-23
Tel: 943 27 18 66.
cvc@vascodecamping.org
www.vascodecamping.org

Bekak

- **Ikasketak erkidegotik kanpo egiten dituzten unibertsitarioentzat**
Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. 2006-2007 ikasturterako mugikortasun-bekak, ikasketak euren autonomia-erkidegotik kanpo egingo dituzten ikasleentzat. Eskerak 2006-2007 ikasturtean ikasleen ikastetxe izango direnetan egin beharko dira.
Epea: 2006-10-31 **Tel:** 902 11 12 25.
info-beca@mec.es
www.becas.mec.es

Iragarkiak

- **Silder bikotea.** zure ezkontza egunean, erlijioso zein zibila, musikariak behar badituzu, jar zaitez gurekin harremanetan. Tel: 653 739 848 edo 649 216 923.

Gutunak

Maltzaga

Irure Soraluzeko Auzorik handiena da. Sologoenetik, Osintxu aldeko sarreratik, Maltzagako trenbideraino (Eibar eta Soraluze arteko muga) doa, Deba Ibaiaren ezker aldean. Eta Irure auzoaren iparraldean kokatzen da Maltzaga. Beti izan da puntu estrategikoa; lehen, baserritarrak eta soraluzetarrak batzen ziren eta tren estazioa, eskola, etxeak eta San Rafael ermita zeuden bertan. Gipuzkoako Batzar Orokorrek ere Sagarategieta baserrian bildu izan ziren. Adineko askok gogoan izango ditu bertako erromeria eta festak. Orain, oster, errepide eta autopisten gurutzatze leku izatera mugatzen da Maltzaga.

Trenak gaur egun Maltzagan geratzen ez direnez, autobus geltokia da bidaiariok gehien darabilguna. Baina ez dago aterperik, apurtu zutenetik, eta ez dirudi inork inguruko zikinkeria jasotzeko ardura duenik. Hain aparte gelditzen zaio administrazioari... eta sasi artean izkutatzen ari denez... gero eta tris-teago dugu Maltzaga.

Erakundeek laguntza eskatu beharko

litzaieke autobus geltokia eta ingurua konpontzeko eta txukuntzeko. Egia da ez dela lehen beste jenderentzat behar, baina oraindik ere Soraluze eta Bergarako gazteak Maltzagara joaten dira autobusez eta autoestop eginez, Eibar eta Elgoibarrera joateko asteburuetan bereziki.

Badakigu Maltzagako erromeria famatuak ez direla itzuliko. Idatzi honen helburua ez da sasoi bateko bizitasuna berpiztu eta jende ugari egunero bertan biltzea, baina bai inguruari itxura egokia eman eta ahal den neurrian San Rafael ermitaren oroimena ez galtzea. Adibidez, San Rafaelen ohorezko monolitoa eraiki daiteke, eta horrela, hildako auzotarren omenez loreak eramane ahalko dituzte eta urriaren 24an santuaren eguna ospatu.

Soraluze nire herriari eskaera hau eginez, agur bero bat.

Miguel Moyua,

Maltzagako Illargi taberna zenekoa

Anti Bush

Ze, gobernari zaren hori, faxista bezala egin duzu dena. Beti "herriak akabatuko ditut" bezalako lelo faxistekin. Hi!

Bush, faxista zara eta zure lagun Arnold Swerzenager ere bai. Eta Libanon borroka zuek egin duzue, eta hauek harritzak eta bonbak ipintzen dituzte. Zuek zer lortzen duzue? Kontua petro-

lio da. Eta Euskal Herria? Hemen borroka inoiz ere ez.

Estatu Batuek Iran libreza izatea nahi dute. Eta Euskal Herria, banan-banan, berdin. Presoak Etxera! (Ni ere preso sentitzen naiz. Ni solidarioa naiz)

Gabriel Galan Solana

Jaiotakoak

- GORETI ALONSO GARAIZABAL

Hildakoak

- JOSE OLAMUSU EGIDAZU
- ELENA MENDIOLA IRAOLAGOITIA

Zer irizten dotsazu?


Juan diran astietan, zazpi langile hil dira Euskal Herrian lan istripuen ondorioz. Sindikatuek gogor salatu ditzuzte ezbeharrak, eta mobilizaziño ugari izan dira.

Zegaittik uste dozu gertatzen diala hainbeste lan istripu?



Juan Luis Ariznabarreta
48 urte, metalgintzako langilia

Gehixenbat segurtasun faltia-gaittik. Gainera, jende asko dabil prekaritatan lanian. Kontratuak hobetu biharko lirake, neurri gehixago hartuaz baita.



Jabi Gonzalez
21 urte, ikaslia eta langilia

Lan baldintzak onenak ez dia eta segurtasun neurrixak ez dialako betetzen komodidade eta kontzientzia ezagaittik. Nere iritziz, enpresarixuak diru gehixago inbertidu biharko leukie seguridade kontuan.



Lourdes Rodriguez
35 urte, etxeoandria

Ez daolako segurtasun neurri askorik, ezta horrek betearazteko zaintzarik be. Nere ustetan horrek hobetu ezkeru, askoz gutxiago egongo lirake.



Janire Salguero
15 urte, ikaslia

Kontrol eta segurtasun gutxi dagualako eta horrek hobetu biharko lirakez. Nik uste horren arduradunak ugazabak dirala.



Concepción Moreno
56 urte, etxeoandria

Segurtasun faltia izan leike, eta baita makinan rebiziño eskasa edo gutxitan eindakua. Nere familixan birritxan tokau dia holako ezbeharrak eta arazo larrixa da danondako.



Agustin Alvarez de Eulate
50 urte, irakaslia

Batez be lana oso mugikorra dalako, jende fijo asko ez dago, eta noski, jendiak lana bihar dau. Orduan, askotan baldintza txarretan be eitten da. Errua danok izan arren, batez be enpresa eta gobernuak dauke.



EDURTZA Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze





Babes ofizialeko 34 etxebizitza asteazkenean esleitu ziren

SACIAko orubean eraikiko diren 50 etxebizitzetatik 34 urriaren 11n esleitu ziren, udal kiroldegiko frontoian egin zen zozketan. Etxebizitzak 2 edo 3 gelakoak izango dira eta 86.735 eta 96.606 euro artean balioko dute. 75 urteren buruan, etxebizitza Jaurlaritzaren jabetzara itzuliko da. Falta diren 16 etxebizitzak, eraikitze-lanak hasten direnean esleituko dira, alkilerrean.

Adjudikazioak ez dira behin betikoak, berriz aztertu beharko dira adjudikaziodunen egoera ekonomikoak. **“Eskubideak ez dira zozketatzen”** lelopean, herriko “Elkartzen” taldekoek eskuhorriak banatu zituzten, etxebizitza eskubidea NBERen Giza Eskubideen 25. artikuluan jasotzen dela salatuz, eta herriari 300 etxebizitza hutsik daudela gogoraraziz.

Soraluzetarrentzat autobus gehiago jarriko dituzte

Zerbitzu gehigarriak jarriko ditu Foru Aldundiak aste honetan. Urriaren 4ean, Soraluzeko Garraio Publikoaren Aldeko Plataformako hiru kide eta Oscar Gabilondo alkatea, Foru Aldundiko Kote Olaiola eta Koldo Azkoitiarekin batu ziren. Plataformakoek herriari autobusekin eta ordutegiekin dauden arazoak berri eman zieten eta lehenbailehen egin beharreko aldaketak eskaera egin ere bai.

Aldundiko ordezkariak Soraluzeren egoeraren aurrean, aste honetarako behin-behineko aldaketak egingo zituztela agindu zieten, herriaren-



tzat beharrezkoak diren zerbitzu gehigarriak jarri. Hala ere, abenduaren 1ean ipiniko da indarrean Deba Barreneko garraio publikorako plana eta orduan berregituratuko dute Soraluzeko autobus zerbitzua.

Oinezkoendako pasabidea egingo da Ezoz Bidean

Astlehenean hasi ziren Ezoz Bidean oinezkoendako pasabide berria egiten. Bidea metro eta erdi zabalduko da, bueloan, oinezkoendako pasabidea utziz. Lanak Izartu II-koak dira eta Goi-



tu enpresari esleitu zaizkio, 113.852,05 eurotan. 2-3 hilabetean amaitzea aurreikusten da. Lanak direla eta, debekatuta egongo da 10 zenbakitik 16-rairako kotxea aparkatzea.

Emakume eta gizonezkoen berdintasunaren aldeko plana

Soraluzeko Udalak emakume eta gizonezkoen arteko benetako berdintasun planak ezartzeko konpromezua hartu du. Eibar eta Ermuak zabaldutako bideari jarraituz, Deba, Mutriku, Elgoibar eta Mallabirekin batera, herri mailan ezarriko dituzte Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun Legearen helburuak. Erakundeek laguntza eskatu dute Debegesatik politikan, ekonomian, kulturean eta gizartean eragingo duen proiektu honek aurrera egin dezan. Emakundek bere babesa eman dio ekimenari.

GILA TABERNA
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!
Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K. Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13



Ibai-eder soziedadean egin dugu hitzordua Jose Luis Badiola (Soraluze, 1947) eta Jesus Urizar (Soraluze, 1949), Duo Plaentxirekin. Mahai baten bueltan jarri eta beraien ibilbide musikari erreperaso egin diogu, mokadu eta zurrut artean. 20 urtetik gora daramatzate kantaldiak eskeintzen, eta ez dirudi sasoia galdu dutenik. Aurten, inoiz baino kantaldi gehiago eman dituzte, 50 inguru. Oraindik ere, 16 urte zituztenean kantatzen zuten tonu berean kantatzen dute Jose Luisek eta Jesusek, eta euren falsetea eibarko mejikanada taldeak inbidiatan jartzeko modukoa da. Datozen hilabetetan, euren erreperotoriotik 16 kantu aukeratu eta grabazio bat egiteko asmoa daukate

Moda berrien gaineratik, Duo Plaentxi

Noiz kantau zenduen lehenengo aldiz alkarrekin?

J.L. 1965eko Andramarixetan. San Roke txiki egunian urtero antolatzen zan Plaza Barrixan kuadrilen konkursua, eta guk be urten genduan. Kuadrilako batzuk instrumentuak jotzen, beste batzuk pankartia oratzen eta Jesus eta bixok kantuan.

J. Egun polita izaten zan haura. Kuadrila bakoitzak zeoze prestatzen zeban: parodia bat, kantua, teatrua.... Goguan dakat bandakuak pijamiakin urten zebela.

Lehenengo aktuaziñua eta gero zer etorri zan?

J.L. Ines Marik hartu ginduazen eta Trio Nubay taldea sortu genduan. Inesek esan zoskun: "14k ezingo dogu kantau" eta hirurok hasi ginan. Hasieran nik abestu bakarrik egiten neban. Gitarria Inesek eta Jesusek jotzen zeben.

Zelakua izan zan Trio Nubay esperientzia?

J. Esperientzia motza baina oso politta. 1965etik 1967ra ibili ginan. 1966xan Gallo de oro kantu lehaketia irabazi genduan eta TVEn be urten genduan.

J.L. Goguan dakat zer esan zeban Jose Luis Barcelona TVEko presentadoriak: "a continuación, un trio de armas tomar, Trio Nubay, de Placencia de las Armas" (kar, kar, kar)

"Pentsau leiken leku guztietan kantau dogu: zezen plazetan, bodetan, herriko jaixetan, elizetan, zaharren egoitzetan, festibaletan, putiklubetan..."



Trio Nubay eta gero hasi zan duo Plaentxi?

J. Ez. Urte batzuk beranduragora arte ez zan sortu Duo Plaentxi. Ni Mansos-ekin ibili nitzan lehenengo eta eibarko eta azkotiko talde banean gero, bodetan eta diskoteketan kantatzen. Noizipenian alkar tzen giñan, baiña era informalian.

J.L. Faustina Baskaranen omenajian sortu zan Duo Plaentxi. Sasoi hartan, Faustinan tabernia oso eza-guna zan Eibarren. Domekero, mexikanadak eta holako musikia kantatzen ziran bertan. Talde asko eta onak zeren Eibarren eta gu 14 urtekin hareri entzutera juaten giñan. Zinera juan biharrian autobusa hartu eta eibarrera, Faustinan tabernara. Txikito bat eskatu eta baztar baten geratzen ginan ixil-ixilik, entzuten.

J. Faustinari omenajia egin bihar jakola jakin genduanian galdetu genduan ia guk be kantau geinkiasen 3 edo 4 abesti eta baietz. Duo Plaentxi izenak omenaldi haretan urten zeban. Hogeit urtetik gora izango dira. Handik aurrera, jaialdixetan parte hartzen hasi giñan.

Ze lekutan jo izan dozue?

J. Pentsau leiken leku guztietan: zezen plazetan, bodetan, herriko jaixetan, elizetan, jubilauekietan, zaharren egoitzetan, festibaletan, pu-

“Falsetia danok dakagu, baiña ikasi egin bihar da etaratzen. Hamen inguruetan iñork ez dau falsetian kantatzen, Eibarko Veracruz-ek bez”

tielubetan, partikularrendako, Euskal Telebisan be 3 edo 4 aldiz...eta pentsaizu, hainbeste lekutan ibilita hainbeste ezagun eta lagun egin doguz...horixe da neretako gauzarik polittena.

J.L. Gipuzkua aldiari jotzen dogu gehixen. Bizkaitik be bastante deitzen doskue. Nafarroatik eta Arabatx gitiagi. Kanpora urten izan dogu, Burgozera eta, baina oso gutxi.

Zenbat kantaldi emoten dozue urtarian? Aurten sekula baino kantaldi gehixago emon dogu, 50etik gora. Maiazteko, ekaineko, uztaileko eta abuztuko asteburuak hartuta euki doguz.

Zuen falsetiak jentiarri asko gustatzen jakues. Zela ikasi zenduen falsetia egiten?

J.L. Don Asensiok erakutsita. Mutikotan koruan ibili giñan, tiple, eta

Don Asensiok esaten zoskun: "falsetia etara bihar da", "Falsetia? Zer da falsetia?"

J. Falsetia danok dakagu, gauza naturala da, baina ikasi egin bihar da etaratzen. Hamen inguruetan iñork ez dau falsetian kantatzen, Eibarko Veracruzek bez. Gu trio Calaberasen jarraitzailiak gara eta harek kantatzen zebe falsetian. Mejikon, itxuria, "quiebro" esaten dotse falsetiari.

J.L. Anekdotak bat: kasualidadez, plazentziatar baten bitartez, gure grabaziño bat Madrilerara heldu zan, Maria Dolores Praderan rekintistia-gana. Mejikanua da bera, Txabo, indix-indixua, eta hola esan zeban: "Quienes son estos? Ahora ni en Mexico se canta asi". Igual bisita bat egingo doskula esan zeban.

EL CRUCIFIJO DE PIEDRA

Miguel Aceves Mejia

Cuando la estaba queriendo
Cuando la estaba sintiendo
Todita mía, La vi partir
Me juro que regresaba

Pero todo era mentira
Porque ya su alma no era de mí
En la noche silenciosa

Nos miramos
Frente a frente
Sin hablar

Ella me dijo de pronto
Que olvidara su cariño
Que no me quería engañar

Fue bajo del crucifijo
De la torre de una iglesia
Cuando la luna nos alumbró

Yo la estreche entre mis brazos
Con ganas de detenerla
Pero el orgullo me lo impidió

Ya solo frente a la iglesia
Y llorando ante el cristo
Fui a implorar

Al contemplar mi tristeza
El crucifijo de piedra
También se puso a llorar



GALDERAK

1. Duo Plaentxi, eta biok Elgoibarren bizi zarete.
2. Noiz jartzen zaitu estuasunean Jesusek / Jose Luisek.
3. Zertan da artista Jesus / Jose Luis.
4. Abesti bat.
5. Talde bat.
6. Kantatzeko leku bat?
7. Zer pasatzen da azkenengo urtietan San Roke egunian?

ERANTZUNAK

JOSE LUIS

1. Andrak eruan ginduezen, ibaixan behera.
2. Berak ni ixa sekula ez
3. Nere ustez rekintua jotzen eta kantatzen, bixak batera egiten. Oso gaitza da bixak koordinatzia. Bestalde, lehenengo abotsa errez egingo leuke, arazorik barik
4. Flor silvestre
5. Trio Calavera
6. Plazentzia
7. Girua jeitsi egin dala. Azkenengo urtietan eurixa egin dau gainera. Etortziari laga biharko dotsagu.

ERANTZUNAK

JESUS

1. Egixa esan, otzan- otzanak gara
2. Askotan. Esaldi bat gehixegi luzatu edo mozten badau, arnasarik hartu ezinda geratzen naiz. Baina jentia ez da konturatzen.
3. Jose Luisek berezko kondiziñuak dakaz kanturako, aguantia be demasa; kriston elementua da.
4. Crucifijo de piedra
5. Trio Calavera
6. Plazentzia
7. Ah, gure kulpia da edo?(kar,kar,kar)

D3BAJAZZ
ELGOIBAR · SORALUZE · ELGETA · DEBA · MUTRIKU

20/ 10 ELGOIBAR Herriko Antzokian 22.15
LOS REYES DEL KO

21/ 10 SORALUZE Liburutegiko Hall-ean 22.30
ITXASO GONZÁLEZ TRIO

22/ 10 MUTRIKU Kultur Etxean 20.00
JERÓNIMO MARTÍN TRIO

27/ 10 DEBA Kasinoan 22.30
TERELA GRADIN / MANUEL GUTIÉRREZ

28/ 10 ELGETA Espalía Kafe Antzokian 22.30
ORTOPHONK + WAGON COOKIN'

Aurten ere emakume kantari bat izango dugu



Baba lehiaketa, Babadator...

Aurten ere Gaztañerre Azokan Pileanek baba lehiaketa antolatuko du. "Inoiz egindako kalitaterik oneneko lehiaketa eta bazkaria" izan daitezten, herritarrak parte hartze-
ra gonbidatzen dituzte pil-pileane-
nekoek. Kuadrilak, taldeak zein pare bat laguneko bikoteak izan daitezke. Izen-emateak 943751304 edo pilkultura@euskalerrria.org-
en egin daitezke gaurtik hasita.



Gaztañerre Azokan postua jartzeko izen-ematea zabalik

Hilabete baino gutxiago falta da azaroaren 11an ospatuko den XI. Gaztañerre Azokarako. Bertan postua ipintzeko izen-emateko epea zabalik dago iadanik, eta baseritar, artisau eta bestelako taldeek Debemenera deitu behar dute horretarako (943 74 40 67).

Itxaso Gonzalez jazz kantaria zapatuan liburutegiko hall-ean

Itsaso Gonzalez trio izango dugu zapatu honetan Soraluzen, Deba-jazz III. edizioaren barruan. Kantari bilbotarra maila handiko jazz musikariekin aritu izan da beti, Joan Monné, Carlos Gracia "Tato", Iñaki Salvador, Gonzalo Tejada, Víctor de Diego, Andrej Olejniczak edo Jon Urrutiarekin esaterako. Zapatuan Dani Pérez gitarrajolea eta Gorka Benítez saxojolea izango ditu lagun. Aurten ere, Errabal Kultur Elkarteak eskualdeko Udalen laguntza jaso du Debajazz-a antolatzeko.

AGENDA

- **Urriaren 20an**, Elgoibarko Herri antzokian, 22:15etan: Reyes del K.O.
- **Urriaren 21ean**, Soraluzeke liburutegiko hall-ean, 22:00etan: Itsaso Gonzalez
- **Urriaren 22an**, Mutrikuko kultur etxean 19:30etan: Jeronimo Martin hirukotea.
- **Urriaren 27an**, Debako kasinoan, 22:00etan: Terela Gradin & Manolo Gutierrez pianojolea
- **Urriaren 28an**, Elgetako kafe antzokian, 22:00etan: Ortophonk, Wagon Cooking.



Disainua eta Sormena

Polígono Amillage, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



MENDATA taberna

- Pizzak
- Bokadilloak
- Sukaldetik zure etxera!!
- Kazuelitak
- Razioak

ostirala 08:30 - 22:30
larunbata 08:30 - 22:30
lgandea 08:30 - 22:00

Tel.: 943 75 13 87



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Berbalagun,

“euskaldun berriak eta zaharrak barriketan ipintzeko”

Aste honetan egin dute Berbalagun egitasmoaren aurkezpena. Programaren nondik norakoak jaso asmoz, Arrate Gisasola berbalagun programako dinamizatzailearekin batu gara.

Zer da Berbalagun?

Euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak elkarrekin berba egiteko programa da. Euskaraz egiteko gunea.

Nondik sortu da programa hau?

Soraluzen euskararen erabilera maila ezagutza mailaren azpitik dago, beste herri askotan bezala. Horri aurre egiteko sortu dugu.

Zein da egitasmoaren helburua?

Euskararen erabilera bultzatzea. Batetik, Euskaltegietako azken urratsetako ikasleek euskaraz bizi den "mundua" ezagutu eta bertan murgiltzeko aukera izango dute. Bestetik, euskaraz jakin arren egiterik ez duenak, horretarako modua izango du. Epe luzera, Euskal hiztunen komunitatea indartzeko balioko du, ondo eta ez hain ondo dakiten euskal hiztunak harremanetan jartzen baititu.

Zer egingo dute berbalagunek?

Berba egin. Taldeak osatuko dira, 2 euskaldun berri eta euskaldun zahar batekin. Ordutegia eta egutegia ikasleen eta beste herriko partaideen gogo, asmo, zaletasun eta disponibilitatearen arabera jarriko dira.

Zergatik parte hartu beharko lukete euskaldun berriek?

Euskara euskaltegitik kanpo erabili behar dutelako, eguneroko bizitzan normaltasunez, eta euskal komuni-



Pil-pilean, EHE, AEK eta Udaleko ordezkariak.

“Euskara euskaltegitik kanpo erabili behar da, eguneroko bizitzan normaltasunez”

tatean integratu behar direlako.

Eta euskaldun zaharrek?

Euskararen erabilera bultzatzeko ezinbestekoak direlako.

Noren ekimena da egitasmo hau?

Pil-pilean Euskara Elkarteak, Soraluzeko AEK Euskaltegia, Euskal Herrian Euskaraz eta Udalaren arteko elkarlanaren emaitza izango da. Arlo soziokulturalean ari diren beste talde eta erakundeek ere parte hartuko dute programan, jarduerak antolatzen, adibidez.

Aurten lehenengoz?

Bai. Iaz hasi ginen prestatzen eta aurten eramango dugu praktikara. Beste herri batzuetan urtetan egin dute, eta dirudenez, emaitza ona jaso dute.

Dibertigarria izango da?

Bai, noski! Solasaldi interesgarriez gain, eskola orduetan ikastaroak, hitzaldiak... antolatuko dira eta eskola orduetatik kanpo sagardotegira irteera, herriko baserrietara, herriko jende interesgarriarekin hizketaldiak...

Norentzat? Euskaldun zahar eta berrientzat

Zer egingo dute? Berba

Zer gehiago? Irteerak, ikastaroak...

Noiz? Azaroan hasi eta ekainera arte

Zenbat ordu? Nahi dutena

Dohainik da? Bai

Izen-emateko epea: azaroak 10 arte

Informazioa: 943 75 13 04

E-maila: pilpilean@euskalnet.net



Zortzi plazentziatar II. Antxintxika krosean

Urriaren 8an, domekan, 8 soraluze-tarrek hartu zuten parte Soraluze eta Bergara artean egindako proban. 216 korrikalariren artean, Ritxar Fernandez eta Arantza Aldalur izan ziren lehenak krosaren bigarren edizioan. Herritarren sailkapena:

| | |
|-------------------------|-------------|
| 21. Igor Cerrajon | 36 m. 14 s. |
| 61. Gorka Tornos | 39 m. 56 s. |
| 76. Koldo Azkorbebeitia | 40 m. 57 s. |
| 95. Joseba Exposito | 42 m. 07 s. |
| 97. Miguel Angel Gil | 42 m. 11 s. |
| 115. Luis Ariznabarreta | 43 m. 15 s. |
| 146. Victor Trebiño | 46 m. 25 s. |
| 161. Ane Miren Etxabe | 49 m. 25 s. |



Mikel Hernándezek forma onean bukatu du denboraldia



Mikel Hernández Debabarrrena taldeko txirrindulari plazentziatarrek emaitza onak lortu ditu denboraldi bukaeran, hasieretan pattal samar ibili eta gero. Denboraldi erdira arte nahikoa lan izan zuen Mikelek karrerak bukatzen. Erditik aurrera berriaz, fin ibili da, 10. eta 15. postu artean sailkatuz gehienetan. Behin hirugarren. Joan zen astean, Elgoibarren, 2. postuan heldu zen afizionatuendako San Pedroko igoeran.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

LASKURAIN

| | |
|---------------------|----|
| • Xala - Laskurain | 22 |
| Titin - Nalda | 19 |
| • Titin - Elgoro | 22 |
| Xala - Laskurain | 20 |
| • Titin - Laskurain | 22 |
| Xala - Lasa | 11 |

IÑAKI JAUREGI

Aginagako finalean

| | |
|------------------------|----|
| • Erroizenea - Jauregi | 22 |
| Urmeneta - Aranalde | 18 |

AITOR ATXOTEGI

| | |
|----------------------|----|
| • Atxotegi - Loiola | 22 |
| Artetxe - Uzkudun | 16 |
| • Atxotegi - Loiola | 22 |
| Arrillaga-Agirrebeña | 8 |

FUTBOLA

- Elgeta 2 -Sora 2 (erreg.)
- Sora 3-Eibartarrak 0 (jub.)
- Eibartarrak 12 -Sora 0 (kad.)

AGENDA

FUTBOLA

Zapatuan, Ezozin 16:00etan
• Sora - Ikasberri (erreg)

Domekan, Donostian
• Axular - Sora (jub.)

Zapatuan, Ezozin 11etan
• Sora - Ilintxa (kad.)

ESKU PILOTA

DV torneoa

Leitzan, Ostirala 20, 20:00etan

- Atxotegi - Otxandorena
- Gorka - Beroiz

ARMENDIA JATETXEA



Ezoz Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Rseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

VIDAL frutadenda



Etxaburueta 2
Tel. 943752055



kutxa

gizarte ekintza

Beroska eta Iban Zarobe

Babes Ofizialeko Etxebizitza bat tokatu zaie

SACIAN egitera doazen Babes Ofizialeko Etxebizitzetako bat tokatu zitzaien joan den asteazkenean Beroska eta Ivan Zarobe anai-arrebei. "Hogei tamasei" zenbakia entzun zuenean, hankak dardarka baten hasi zitzaizkiola aitortu digu Beroskak, baina geldi-geldi geratu zela. 170 kandidaturen artean, etxera pozik joan zen 34 lagunetako bat izan zen bera. Hurrengo egunean elkarrizketatu genuen.

"Nik uste dot mundu guztiak dakala etxebizitza bat eukitzeko eskubidia, eta gaur egun ezinezkoa dago gaztiendako"



Zer egin zenduan zure zenbakia entzutian?

Hogei tamasei zenbakia entzun eta ordenadorian nere izena ikusi nebanian geldi-geldi geratu nitzan. Hankak eta eskuak dardarka hasi jatazen baina ez nitzan mobidu, ez neban keiñurik egin. Etxera, berriz, saltoka sartu nitzan, poz-pozik.

Jentia zela erreakzionau zeban zure inguruan?

Egixa esan iñork ez zeban reakziño haundirik egin. Telebistakuak be han ziran, ia bateron bat harrapatzen zeben saltoka elkarrizketatzeko baina ezebe. Urtetzeruzkuan, kanpotar bat ikusi neban hasarre zoiala eta beste herriko neska bat emozionauta, malkotan.

Ze pausu jarraitu behar izan duzue B.O.E. eskuratu arte?

Oin dala 2 edo 3 urte emon neban izena. Kutxara, eskatzen ziran bihar ziran papelak eruan nittuan. Ivan etorkizunian nere ardurapian geratuko danez, beste zertifikau bat be bialdu genduan, beran minusbalia-rena. Oin dala pare bat hilabete, karta bat bialdu zosten, etxia erosteko eskubidia nekala eta zenbaki batekin. Eta asteazkenian sorteu.

Pentsautu zekazun beste etxe baten sartzia etxe honek egon ezian?

Ez, inundik inora. Sekula ez neban pentsau nik etxetik juaterikan, oso gustora egoten da bertan, baina oin, hain gertu ikusitta aukera hori, oso pozik nago.

Zer pentsatzen jatzuz etxebizitzaren preziua?

Ezinezkuak. Nik uste dot mundu guztiak daukala etxebizitza bat eukitzeko eskubidia eta gaur egun ezinezkoa da gaztiendako etxebizitza bat erostia. Gainera, gaur irakurri dot plazentzian 300 etxebizitza darella hutsik. Udaletxiak zeozer egin biharko leuke, alkilerrian jarri edo...

75 urtera bueltatu bihar izatiari zer erizten dotsazu?

Neri pentsatzen jata zozer erosi ta gero, betiko izan bihar litzakiala. Posible da zure ondoren bateron bat etortzia, eta ez da justua zure seme-alaba horri etxe hori ezin lagatzia.



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Argazki zaharra



Iturria: Ana Sebal.

Sebal-Agirre sendia

Sebal-Agirre familiak joan zen mendeko 20. hamarkadan ateratako argazkia da. Goian azaltzen diren umeak argazkia atera eta gerora jaio zirenez, argazki-montajea egin eta aingerutxo moduan ipini zituzten goikaldean.

Argazkian: **Ama:** Juana Agirre(+), **Aita:** Albertano Sebal(+). **Atzean zutik:** Iluminada(+), Lulo(+), eta Tomas(+). **Aurrean:** Conchi(+), Antoni(+), Telesforo eta Melchora(+). **Goiko umeak:** Maribel eta Loreto.

Lehiaketa

Bidelapurra...

↓
Aurreko aleko erantzuna

Txandrua ei zan gure mendixetako bidelapurra. Atxolin inguruan, Aizkoin trikuharrizan onduan zeukan bizilekua, ezkutuan, eta Deba eta Urola bailaretako basarrixetan ganaua eta bestelako janak lapurtzen ibiltzen zan. Errez eitten zeban lapurretan, baitta hanka ein be aguro. Baina behin, Azkoittiko komentuan lapurretan zebizela harrapatu zittuen Txandrua eta bere kuadrilla.

HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Zela zeken izena liberalen eta karlisten muskika bandak?

- "Libertad" eta "San Ignacio"
- "Paz y Labor" eta "Santa Ana"
- "Paz y Labor" eta "San Ignacio"

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra

edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net

Gogortuz
Fisioterapia zentroa
Oier Oregi Unamuno
943 75 00 22
Santa Ana kalea 7 Soraluze Gipuzkoa

SARIA →

Fisioterapia saio bat Gogortuz zentroan

AURREKO ALEKO IRABAZLEA
Mireia Lamariano

SARIA
Bi lagunentzat afaria Txurruka Jatetxean



**JATETXEA
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

IRATXO
GOXOTEGIA

EGUNKARIA ETXERA ERAMATEN DIZUGU GEHIAGO ORDAINDU GABE

**ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
tlf: 943 75 13 20**



Unai Iturriaga eta Arkaitz Estiballes

Gai jartzailea: Asier Ibaibarriaga

LARREATEGI ANAI ARREBAK TRIKITILARIXEKIN!

Azaroaren
4 an

MENUA

- Entsalada
- Txuleta
- Postrea, kafea eta kopa

PREZIOA

- 22 euro / 20 euro (bazkideak)

Antolatzaileak:



IBILIXAN IBILIXAN
BERTSO ESKOLA

Laguntzailea:



Sorauluzeko
Udala

Izena emateko

Pil-pilean, Arrano, Gila, Gaztelupe



Fresaketa teknologia



Ion Murgizu Pinturak

- Margoketa orokorrean -

Empapelatuak,

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

Telefonoa 943751324
Mugikorra 652777030
Ezoziko etorbidea 24 2 behea
20590 Soraluze



Egin zaitez
Berbalaguna!

Euskara praktikatzeko aukera!
Euskaldunberriak euskaldun zaharrekin!

Informazioa jasotzeko edota izena emateko, **AZAROAREN 10era arte**

Babesleak:



SORALUZeko



Soraluzeko
Udala

Pil-pilean Euskara Elkartea

Tlf: 943 75 13 04

Emaila: pilpilean@euskalnet.net